

## ASOZIAZIO KATEA

### Helburuak

Kontzeptuen abstrakzioa eta asoziazioa egiteko gaitasuna garatzea.

Termino bati buruz egin daitezkeen interpretazioak analizatzea, jendearen esperientzia zehaztatetik abiatuta.

### Parte hartzaileak

+5

### Garapena

Taldearentzat interesgarriak izan daitezkeen eta saio honetan landu beharreko gaiarekin zerikusia duten gako hitz batzuk aukeratuko ditugu.

Hitzetako bat hartu eta taldeari erakutsi ondoren, haien ustez hitz horrekin erlazioten bat izan dezaketen beste hitz batzuk esateko eskatuko diegu parte hartzaileei.

Ordenan, banan-banan, zerekin erlazionatzen duten esango dute.

Arbelean edo paper handi batean idatziko ditugu hitzok.

Ondoren, elkarrizketa bat dinamizatuko dugu, lehen hitza beste horiekin zergatik erlazionatu dugun azaltzeko.

Bukatzeko, taldeak hitz horrekin ulertu duenaren sintesi bat egingo dugu.

### Jolas eremua

Toki eroso bat, ondo entzuteko oztoporik gabekoa.

### Materiala

Arbel bat edo orri handi bat, oharrak hartzeko, eta idazteko materiala.

### Aldaerak

Hitzak papertxoetan idazteko eskatu, eta guztiak poltsa edo kutxa batean sartu ondoren, banan-banan atera eta iruzkindu.

Taldeka ere egin dezakegu.

### Gomendioak

Teknika hau trebakuntza jardunaldi baten hasieran erabiltzea komeni da, taldeak hitz jakin baten gainean zer dakien ikusteko.

Baina trebakuntza jardunaldiaren amaieran ere erabil dezakegu, gai bat sintetizatzeke edo ikasitako kontzeptu bati buruzko ondorioak ateratzeko.

### Ebaluazioa

Taldeari entzun, landu nahi dugun garaiari buruz ahalik eta informazio gehien biltzeko, gaiak badakitena eta ez dakitena abiapuntutzat hartuta.

Erreparatu ea amaierako hausnarketan parte hartzaile guztiek hitz egin duten.

Parte hartzaileek egiten dituzten iruzkin eta gogoetatetik abiatuta, erreparatu ea ariketaren helburua ondo ulertu den eta parte hartzaileen artean ariketak arrakastarik izan ote duen.